

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 8an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen

Txanda elkartearen 2017ko diru-laguntza.

Txanda merkatarikari elkarteak urtean zehar garatzen dituen ekintzetan laguntzeko, Oñatiko Udalak diru-laguntza ematen dio urtero merkatarikari elkarteari. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko elkartearen urteko sarrerak eta gastuak hartzen dira kontuan eta Oñatiko Udalak defizita estaltzen du.

2017ko ekitaldirako Txanda Merkatarikari Elkarteari 20.000€-ko diru-laguntza ematea proposatzen du Sozioekonomia Batzordeak. Justifikatutako ekintzetan onartutako gastuak muga horretatik gora egonez gero, diru-laguntza ezarritako muga artekoa izango litzake.

Horretaz gain, Txandako bezeroei zuzendutako zuzeneko sustapen ekintzetan (fidelizazio txartela, erosketa bonuak,...) onartutako gastu totalaren %20ko diru-laguntza muga ezarriko da.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun zein Sozioekonomia Batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du:

.- Txanda merkatarikari elkarteari, 2017ko ekintza-plana gauzatzeko 20.000€-ko diru-laguntza onartzea, goian aipaturiko gainontzeko baldintzekin. Behin betiko diru-laguntza urte amaieran zehaztuko da, egindako ekintzen memoria eta gastu eta sarreren justifikazioa aurkeztu ostean.